

MIN EVIGE SOMMER / MY ETERNAL SUMMER

Guztioi iristen zaigun bizitzako unea, horretarako inoiz prest ez gaudenean ere

IRATXE MARTÍNEZ

Atzo eguerdian mundurako estreinatu zen Kursaal 2-an *Min evige sommer / My eternal summer* filma. Filma New Directors sailean aurkeztzen da eta Sylvia Le Fanu (Londres, 1990) zuzendariaren lehen film luzea da.

Sylvia Le Fanuk Norwegian Film Schoolen eta Kopenhageko Unibertsitatean ikasi zuen. Bere ikasketak bukatzean, film laburrak zuzendu zituen: *Abu Adnan* (2017), Danimarkako Akademiaren Robert sarirako izendatua, Clermont-Ferrandeko Jaialdian aurkeztua eta Indy Shorts jaialdiko Sari Nagusiaren irabazlea (besteak beste). Gero *Om litt* (2020) film laburra zuzendu zuen eta urte berean, *Amourteur* (2020) zuzendu zuen, Odenseko Jaialdian (OFF) film labur onenaren eta Danimarkako film labur onenaren Robert sarirako ere izendatua. Orain, autofikziozko film oso pertsonal batekin estreinatuko da film luzean.

Min evige sommer / My eternal summer filmean, Fanny ezagutzen dugu, hamabost urteko neska. Fanny, eskola amaitu ondoren, uda oporretarako



Sylvia Le Fanuk istorio pertsonal bat kontatzen du bere lehen filmean.

GARI GARAIALDE

etxera erretiratzen da gurasoekin eta bertan, betiko familia-ohiturak segitzen ditu: irakurtzen, hondartzara joaten, igeri egiten edo poemak idazten. Oporrak uda guztietakoak dirudite, baina laister ikusleak nabari du lasaitasun eta xalotasun horien azpian isilpeko oinaze bat dutela: guztiek familian badakite amaren azken uda izango dela. Elkarrekin geratzen zaizkien egunak

aprobetxatzen saiatzen dira; familiak oraina estimatzearen eta etorkizunari aurre egitearen arteko oreka hauskorrean nabigatu beharko du.

Pelikula honetan, Le Fanuk istorio pertsonala kontatzen digu, eta horregatik bere zuzendaritza-lana ohikoa baino zailagoa izan da. Ez bere lehen aldia delako film luze bat zuzentzen, filmaren eta bere arteko distan-

tzia zaindu behar izan duelako baizik: ez gertuegi oroitzapenak hunkitze-ko arriskuagatik, eta ez urrutiegi bere zuzendari lana aktoreekin interferitzea ekiditeko. "Hasieran oso gogorra izan zen, gidoia idazterakoan batez ere. Gidoia Mads Lind Knudsen-ekin idatzi nuen, eta batera iritsi ginen fikzio puntura. Une horretan errazagoa zen", dio Le Fanuk.

Baina oso gai gogorra eta tristea izan arren, bere filmak mezu positiboa du. "Itxaropena dago, amaiera tragikoa izan arren. Une gogorrenetan ere, bizitzak aurrera jarraitzen du, nahi ala ez. Ama pozik egongo litza-teke Fannyk aurrera jarraitzen duela jakitean", erantzuten du zuzendariak filmaren mezuari buruz galdetzean. "Oso garrantzitsua da elkarrekin daukagun denbora aprobetxatzea eta gozatzea". Eta bere kasu pertsonalaz galdetzean, hauxe dio: "Nire ama galtzeak nire ama emakume eta ama gisa ezagutzeko aukera eman zidan, Fannyri zintan gertatzen zaion bezala".

Papera prestatzeko, zuzendariak elkarriketa asko izan zituen Fannyren papera egiten duen aktorearekin: Kaya Toft Loholt. "Kaya oso azkarra da eta ulertzeko gaitasun handia du. Oso elkarriketa sakonak izan genituen, eta horrek izugarri lagundu zidan zuzentzen". Le Fanu zuzendaria, bere aktore eta filmaren ekoizleekin egon zen estreinaldian, eta orain Zinemaldiaren ikusleek bere istorioa ezagutu ahal izango dute.



Cooperación Española



SSIFF
PREMIO
COOPERACIÓN ESPAÑOLA



cine
sostenibilidad
desarrollo

